

LEGORRETA 2030, PLAN ESTRATEGIKOA

ARDAZKAKO MAHAI ZABALA. 2. SAIOA

Eguna: 2021/11/13

Ordua: 10:00-13:00

Lekua: Legorretako Herri Antzokian

Parte hartzaileak: 29 lagun, 20 emakume eta 9 gizon
Elhuyarretik Amaia Zarrabeitia, Idurre Zugazagasti eta Elixabet Urzelai

Gai-zerrenda:

1. Harrera
2. Ongietorria
3. Girotzea: balioak eta Legorreta
4. Erronkak eta ekintzak:
 - i. Legorreta: 11 erronkak aurkeztea
 - ii. Erronken lanketa talde txikietan
 - iii. Plenarioa eta lehenestea
5. Balorazioa
6. Itxiera

Akta:

1. Harrera

Parte-hartzaileei harrera egin eta partaideei asistentzia-orria betetzeko eskatu diegu, horrekin bat, eta orain arte prozesuan parte hartzeko aukera izan ez duten pertsonen datu-babeserako baimen-orriak banatu eta betetzeko eskatu diegu. Itzulpengintza eta zaintza zerbitzuak behar izan dituen partaiderik etorri ez denez zerbitzuak bertan behera geratu dira.

2. Ongietorria

Saioari hasiera emateko, Zelai Amenabarrok, Legorretako alkateak, bertaratuei ongi-etorria eman die, eta Legorreta 2030 plan estrategikoaren barruan ze puntutan kokatzen garen azaldu die.

Jarraian, saioaren helburua eta planteamendua azaldu diegu bertaratuei, euren egitekoa zein izango den argitzearekin batera.

- **Saioaren helburua:** Lehenengo Mahai Zabaleko saioan ateratako erronkak gogorarazi, eta horiek oinarri izanda erronka eta proiektuak landu, osatu eta lehenestea.

3. Girotzea

Girotze ariketarako, ardazkako-mahaietan landutako balioak hartu ditugu oinarri. Balio bakoitzarekin txartel bat egin dugu eta poltsa batzuetan sartu ditugu nahastuta. Partaideei poltsetatik txartel bana hartzeko eskatu diegu, ondoren balio berdina tokatu zaien horiekin taldetan elkartzeko eskatu diegu.

Balioak:

1. Bizikidetza (inklusioa, errespetua, elkarbizitza...)
2. Justizia soziala (pobrezia eta ezberdinkeriei aurre egin, emakume eta gizonen arteko berdintasuna barne hartuta edo feminismo ikuspegitik)
3. Ingurumenaren zaintza (jasangarritasuna)
4. Aktiboa (partehartzea, ekintzailtza)
5. Euskara (hizkuntzaren lanketa, mundura irekita)

Behin taldetan jarrita, eskatu diegu balio horren inguruan hausnartzeko, ondoren plenarioan guztiekin elkarbanatzeko. Lan honetan laguntzeko galdera batzuk planteatu dizkiegu aurkezpenean:

- Papertxoan irakurri duzuen balioa zer da zuentzako? Zerekin lotzen duzue? Legorretarako baliagarria izan daiteke? Zertarako? Zergatik?

Jarraian ekarpenak:

Balioa	Ekarpena
Bizikidetza	- Definizio aldetik ongi dago, beharrezkoa da balioa. Duela 50 urte Legorretan problematika berri bat agertu zen, castellanoen integrazioa. Momentu honetan arriskua kanpoko etorkinekin bi mundu paralelo sortzea da, haiek eta gu. Egoera hau indartzen eta eraldatzen ari da, bi bide har ditzake onera eta txarrera. Erronka hori nola kudeatu aztertu behar dugu.
Justizia soziala	- Bai, baliagarria da justizia soziala, ez da zalantzan jarri daiteken zerbait. Bazterkeriaren aurka eta emakume eta gizonen berdintasunaren alde lan egin behar da. - Berdintasunaren arloan egoera hobetzen ari da, baina normalizatutako jarrera eta egoera asko daude oraindik. Pobreziaren aurkako lanketa ere ari gara egiten, baina lan hau hobetzen jarraitu behar da.
Ingurumenaren zaintza	- Norbanako bezala eguneroko ohiturak aldatu behar dira eta herri bezala ohiturak aldatu. Udalak herri subirano baten izateko bidea markatu behar du. Erabaki politikoak goitik datoz, baina guk pausuak eman behar ditugu bidea ez difuminatzeko.
Aktiboa	- Beharrezkoa da kohesioa lantzen delako, herri osasuntsu baten seinale delako. Bizikidetza indartu behar da. - Legorreta herri aktiboa da. Zergatik? Hala ikusten da kanpotik ere

Euskara	<p>“Legorretar” gisa ikusten gaituzte. Ekintza asko antolatzen dira herrian.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aritu gara hizketan behar bada arrazoi bat izan daitekeela kokapena, Goierri eta Tolosa artean dago Legorreta, terreno indefinitu batean, eta horrek gure izaeran eragin du agian.
	<ul style="list-style-type: none"> - Abiapuntuan guk kokatu behar dugu, ohartu zer egiten dugun. Askotan, gugandik ezberdina den norbait ikusten badugu gazteleraz hitz egiten diogu, eta susto bat baina gehiago hartu izan dugu bueltan euskaraz erantzun digutenean. Kontzientzia hartu behar dugu eta lehen hitza euskaraz egin, lanean jarraitu.
	<ul style="list-style-type: none"> - Mundu berri honetan elkarrekin sortzeko datozen bideak gazteleraz eta ingelesezkoak dira. Egoera horrek gure gazteak hizkuntza horietan bizitzera bultzatzen dituzte.
	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera berriak ditugu. Orain euskaraz hitz egiteko ikasketa gehiago daude, lehengo garaiekin konparatuta. Ezinbesteko mugimendura egokitu behar dugu, azken urteetan atzerakada eman baita (<i>euskararen erabilerari dagokionez</i>). Nola uztartu atzerakada eta ohitura berri hauekin euskararen erabilera? Kanpainak egiten dira bai, baina epe mugatuetan... erabilera indartu behar da.

4. Legorretaren erronkak eta ekintzak

Legorretak 11 erronka

Balioen inguruko hausnarketa egin eta partekatu ondoren, aurreko saiotan landutako erronkak eta hobetzekoak elkartuta osatu dugun aurkezpena partekatu dugu: *Legorretak 11 erronka*.

Erronka		Proiektuak
Antolamendua	1. Pertsonak oinarri izango dituen hiri-planifikazioa egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Uholdegarritasun-afekzioari nola erantzun aztertzea - Espazio publikoen erabilera eta apropiazioari buruzko azterketa egitea - Berdeguneen mantentze lana sendotzea - Etxebizitza-eskaintza herritarren beharrei egokitzea - Mugikortasuna gaur egungo beharretara egokitu
	2. Landa-eremua babestu eta	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko ekoizleei erraztasunak

	balioan jartzea	<p>emateko bideak aztertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herri lurak erabiltzeko formula desberdinak aztertzea - Baso ustiaketa jasangarri baterako politikak lantzea
	3. Energia-burujabetzaranzko pausuak ematea	<ul style="list-style-type: none"> - Energia gaien inguruko aholkularitza-zerbitzua jartzea - Kontsumo-ohituren inguruko kontzientziazio lana egitea
	4. Lankidetzan jardutea	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu-eskaintza indartzeko eskualdeko zein Gipuzkoako beste herri eta eragileekin lankidetzak bideak garatzea
Herrigintza	5. Herritarren partaidetza, konpromisoa, herriarekiko atxikimendua lantzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Herri bizia eta aktiboa izateko herritarrak ekintzak antolatzen erakarri eta animatu... - Elkarte eta eragile desberdinen arteko harremanak landu, belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatuz - Adinekoen sozializazioari eutsi eta indartu: Tipi Tapa egitasmoa indartu, eskola umeekin ekintzak burutu - Auzolana landu
	6. Gazte eta nerabeen behar nagusiei erantzutea	<ul style="list-style-type: none"> - Nerabeen beharrak asetzeko plangintza lantzea: nerabeentzako espazioak eta ekintzak beraiekin diseinatu eta antolatzea. - Gazteen emantzipaziorako etxebizitzaren gaia lantzea
	7. Herri euskalduna izateko urratsak ematen jarraitzea	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen erabilera ohiturak aldatzeko urratsak ematea: haur eta gurasoena, eta oro har herritar

		guztiena
Zaintza	8. Bakardadeari eta isolamendu sozialari aurre egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Bakardadearen inguruko diagnostiko bat egitea. - Plan komunitario bat sustatzea, gizarte politikak, herriko komertzioak eta herritarrak saretuko dituenak. Helburua herritarren zaintza, baliabide publikoetara iristea erraztu eta isolamendu sozialaren aurka egiteko.
	9. Zahartzaroaren zaintza beharrak asetzeko bideak hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneko zentro balioanitzea lortzea. - Autonomia pisuak sustatzea, bizikidetzaren unitate txikiak bultzatuz. - Aisialdi eskaintza handitzea.
	10. Haurren eta nerabeen heziketaren ardura herri osoak hartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Herri-hezitzaile izaerarekin, "Hezikidetzaren-Elkarbizitza" sustatzeko plana egitea. Ikastetxeak, familiak, aisialdi espazioak, pediatriak, eta udala koordinatuko dituenak. - Aisialdi eskaintza haur eta nerabeentzat handitzea: Ludoteka, jolas librea, edo antolatua. Bide batez, euskaraz, euskara sustatzeko balioko duena. - Euskaldunak ez diren familientzako haurrentzat eskola errefortzuak euskaraz eskaintzea.
	11. Kulturartekotasuna kontuan harturik, elkarbizitza zaintzea	<ul style="list-style-type: none"> - Herrian bizi ahal izateko komertzio txikiek duten garrantzia ikusita, tokiko komertzioa sustatzea (Lokutorio beharra dago herrian) - Kulturartekotasuna sustatzeko plan bat egitea. Desberdinen arteko elkar ezagutza, aitortza eta errespetua

		<p>sustatuko dituen. Elkarren artean harremantzeko espazio eta denborak planifikatzea.</p> <p>- Herrian bizitzen geratzeko, eta luzera begirako elkarbizitzarako, enplegua sustatzea, genero ikuspegiarekin eta behar sozialak kontuan hartuta.</p>
--	--	---

Erronken lanketa talde txikietan

Erronkak zerrendatu eta proiektuak partekatu ondoren, talde txikitan banatu gara, erronka horien ekintza edo proiektuak identifikatu eta zehazteko. Taldeak egiteko, ardazkako gaiak hartu ditugu kontuan (zaintza, antolamendua eta hirigintza), eta partaide bakoitzak nahi izan duen taldera joateko aukera izan du:

Antolamendua: goiko solairuan, 10 lagun. 1,2,3 eta 4. erronkak landu ditugu.

Herrigintza: eszenatokian, 9 lagun. 5,6 eta 7. erronkak landu ditugu.

Zaintza: arto nagusian, 10 lagun. 8,9,10 eta 11. erronkak landu ditugu.

Lanerako proposatu dizkiegun galderak hauek izan dira:

Erronka hori 2030erako garatzeko:

- ✓ Zer egin behar dugu? Nola?
- ✓ Nondik abiatu behar dugu?
- ✓ Zer behar dugu?
- ✓ Zer egin behar du Udalak? Zer egin behar dute herritarrek?
- ✓ Zer egin behar dugu elkarrekin?

Antolamenduaren lantaldea

10 lagun elkartu gara Antolamendua lantaldean, 2 emakume eta 8 gizon. Hasteko eta behin, binaka jarri gara, ondoren bi talde egin ditugu, bikote bakoitzeko kideak bananduta, eta amaitzeko talde osoa batu gara, antolamenduari dagozkion lau erronken inguruan hitz egin eta hausnartutakoa partekatzeko.

Jasotako ekarpenak:

Erronka	Proiektuak
1. Pertsonak oinarri izango dituen hiri-planifikazioa egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Uholdegarritasun-afekzioari buruzko azterketa sakona egitea [12] <ul style="list-style-type: none"> o Uholdegarritasun-maila jaisteko teknikoki zer egin daitekeen aztertu. Zubi eta presen eragina aztertu o Egoera honen aurrean zein konponbide dauden ezagutu (lur-kota igotzea, paretak...) eta bideragarritasuna aztertu o Epe ertain eta luzerako planifikazio bat landu - Zerbitzu publikoen inguruko azterketa egitea <ul style="list-style-type: none"> o Zein udal-zerbitzu eskaintzen diren baloratu eta euren kokapena aztertu. o Zerbitzu bakoitzaren hobekuntzarako neurriak hartu - Mugikortasuna gaur egungo beharretara egokitzea <ul style="list-style-type: none"> o Erdiko kaleko peatonalizazio eremua zabaltzeko aukerak aztertzea o Garraio publikoaren zerbitzua (ordutegiak, maiztasuna...) aztertu eta hobetzea <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tolosarako autobusak jartzea
2. Landa eremua babestu eta balioan jartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Landa-lurren abandonua ekiditea <ul style="list-style-type: none"> o Landa jabeek lurak abandonatzeko zergatiak ezagutzea

<p>[3]</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Herriko ekoizleek lur beharrak ezagutzea ○ Landa jabe eta ekoizleen arteko elkarlanerako guneak sortzea ○ Herri lurak erabiltzeko formula desberdinak aztertzea (lur-funtsa...) - Baso-ustiaketa jasangarri baterako politikak lantzea <ul style="list-style-type: none"> ○ Basoen egoera zein den aztertu ○ Basoen ustiaketa eredu jasangarriak ezagutu eta ustiatzaileak formatu ○ Herritarrek basoen balioaz kontzientziatu
<p>3. Energia-burujabetzaranzko pausoak ematea [8]</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Energia gaien aholkularitza-zerbitzua jartzea <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarren behar eta zalantzak erantzuteko aukerak ematea (diru-laguntzak, eraikuntza-lanak...) ○ Herritarren ingurumen-kontzientzia eta erantzunkidetasunean eragitea - Udalak energia-burujabetzaranzko pausoak ematea <ul style="list-style-type: none"> ○ Udal eraikinen efizientzia handitzea ○ Udal eraikinetan energia-sorkuntzarako aukerak aztertu eta ezartzea (eguzki-plakak, pelet galdarak...)
<p>4. Lankidetzan jardutea [1]</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eskualdeko herrietako udalekin lankidetzan bideak aztertzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Baliabide desberdina konpartitzeko aukerak aztertzea (makinaria...) ○ Herritarrek beste herrietara joaten diren zerbitzuen matrikulazio eta ordainketa-baldintzak aztertu eta hauek merketzeko aukerak baloratzea (pizina, adibidez) ○ Eskualde mailako zerbitzuetara garraio-zerbitzua eskaintzeko aukerak aztertzea (Olaberriko pizina) - Norbanako edo eragile desberdinek euren zerbitzuak eskaintzeko espazioak eskaini (Co-Working)

Herrigintzaren lantaldea

9 lagun elkartu gara Herrigintza lantaldean, 8 emakume eta gizon 1. Hasteko eta behin, hiruunaka jarri gara eta bakoitzak erronka bat landu du, ondoren talde bakoitzak landutakoa beste taldekoei pasa diegu eta horrela talde guztietatik hiru erronkak pasatu dira ekarpenak jasotzeko, eta amaitzeko taldean irakurketa egin dugu erronka bakoitzarena:

Erronka	Ekintza
5. Herritarren partaidetza, konpromisoa, herriarekiko atxikimendua lantzea. (11)	<p>Herri bizia eta aktiboa, eragileen arteko harremanak landuz eta auzolana bultzatuz:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <u>Eragileen mahaia sortu (10)</u> <ol style="list-style-type: none"> I. Eragileen elkartrukea bermatzeko espazioak, komunikazioa landu. II. Ikasturte hasieran urteko planifikazioa komunean jarri, III. Osaera: eragile bakoitzeko kide bat eta udaleko ordezkari batek osatua <ul style="list-style-type: none"> o Udalak parte hartu eta beharrei erantzun o Herritarrak: deialdiak egin eta parte hartzea bermatu o Elkarrekin sinergiak bilatu eta aurrera eraman 2. <u>Adinekoen sozializazioa (1)</u> <ol style="list-style-type: none"> I. Eragileen arteko ikastaro/formakuntzak sortu <ul style="list-style-type: none"> o Eragile bakoitzak bere beharrak eta eskaintzak identifikatu (eragileen mahaiarekin lotuta) o Udalak baliabideak jarri o Herritarrek-eragileek konpromisoa parte hartzeko (eskaintzeko-jasotzeko)
6. Gazte eta nerabeen behar nagusiei erantzutea. (9)	<ol style="list-style-type: none"> 1. <u>Nerabeen beharrak asetzeko plangintza egin (8)</u> <p>Prozesu bat martxan jarri:</p> <ol style="list-style-type: none"> I. Gazte/nerabe batzuk identifikatu aniztasunetik (erreferente desberdinak) II. Hauekin gazte/nerabeak parte hartzeko estrategiak diseinatu. III. Ekintza zehatzak sortu gerturatzeko-erakartzeko IV. Denen artean asanblada bat sortu. V. Asanbladatik hauen behar eta nahiak identifikatu eta plangintza egin.

	<ul style="list-style-type: none"> • Gain ederrekoekin harreman zuzena eta sendoa landu eta bermatu <p>2. <u>Gazteen emantzipaziorako etxebizitzaren gaia landu (1)</u></p> <ol style="list-style-type: none"> I. Hutsik dauden etxeen erabilpena alokairu kontrolatuekin bideratzea II. Bakarrik bizi diren pertsonekin pisua/etxea partekatzeko sistema landu, hartu-eman harremana sortuz
<p>7. Herri euskalduna izateko urratsak ematen jarraitzea (8)</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Euskararen balioaz kontzientziatu. (4) <ul style="list-style-type: none"> • Eragile desberdinekin lanketak egitea. Adibidez, gurasoak euskarazko heziketaz kontzientzia hartzea. 2. Ekintzak euskaraz ere izatea bermatu: <ul style="list-style-type: none"> • herritarrei eskaintzen zaizkigun ekintza guztiak euskaraz ere izatea 3. Lehen hitza euskaraz <ul style="list-style-type: none"> • Euskarari lehentasuna ematea, ahal bada euskararekin jarraituz edozein elkarrizketatan. 4. Udal zerbitzuak euskaraz <ul style="list-style-type: none"> • Udalak ematen dituen zerbitzu guztiak euskaraz ematea 5. Udalak euskararen erabilera bultzatzeko bideak eman (1) 6. eLegunea (euskara taldea) indartu (1) 7. Hizkuntza eskubideak bermatu/exigitu: <ul style="list-style-type: none"> • herritarren hizkuntza eskubideak bermatu daitezen exigitu 8. Hizkuntza kulturartekotasuna sustatzeko erabili: (2) <ul style="list-style-type: none"> ○ Mintzalagun programaren bidez ○ Ikasleak eta herritarrak/eragileak harremanetan jarri

Zaintzaren lantaldea

10 lagun elkartu gara zaintzaren lantaldean, 8 emakumezko eta 2 gizon. Behin taldeetan banatuta, erronken zerrendak banatu ditugu lanerako euskarri izan daitezen. Bi pertsonako bost taldetan banatu gara, bikote bakoitzak 15' izan ditu bi erronka lantzeko (8-9 eta 10-11), ondoren, landu gabeko beste bi erronketara pasa dira eta beste 15' izan dituzte.

Erronda amaitu ondoren, talde handian partekatu ditugu jasotakoak erronkaz erronka, eta ekintza zehatzak adosten hasi gara. Lan horiek egiteko, idazkari bat eta bi bozeramaile hautatu ditugu (emakumezko bat eta gizonezko bat ordezkaritza berdinzale bat izateko helburuarekin).

Jasotako ekarpenak:

Erronka	Ekintza
<p>8. Bakardadeari eta isolamendu sozialari aurre egitea [3]</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Diagnostiko bat osatzea (bakardadea, adineko jendea...) [1] <ul style="list-style-type: none"> o Zein dira herritarren beharrak? zer sentitzen dugu/dute? eta zein dira pertsona horien nahiak? o Aztertu ea diagnostikoa osatzeko teknikari baten beharra izango ote dugun. Udalaren laguntza. o ARTERIA proiektua ezagutu. - Aztertu behar da bizikidetza proiektu bat sortzeko ze baliabide ditugun herrian. [2] - Herritarrak zer egiteko prest gaude behar hauek asetzeko? Norbanako gisa edo auzolanean zein ekarpen egiteko prest gaude?
<p>9. Zahartzaroaren zaintza beharrak asetzeko bideak hobetzea [11]</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneko zentroa lortzea da helburua, baina bitartean jubilatuen elkarteak eraldatu eta baliatu daitezke. [11] - Proiektu hau aurrera eramateko eskura ditugun diru-iturri eta diru-laguntzak zein diren aztertu.
<p>10. Haurren eta nerabeen heziketaren ardura herri</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Herri-hezitzaile izaerarekin, "Hezikidetza-Elkarbizitza" sustatzeko plana egitea. [6]

<p>osoak hartzea [7]</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Oinherri proiektua ezagutu eta ekarri Legorretara. Aztertu nola egokitu herriko errealitatera. ○ Errespetuaren balorea indartu, berreskuratu, lanketa egin. [1] - Nerabeekin zuzenean lan egitea <ul style="list-style-type: none"> ○ Adin eta arlo ezberdinetan sentsibilizazio lana egin ○ herriko ekintzetara gonbidatu ○ leku erreferente bat eman hau eta nerabeei herrigunean bertan
<p>11. Kulturartekotasuna kontuan harturik, elkarbizitza zaintzea [4]</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Herrian antolatzen diren ekintzetara jatorri eta kultura ezberdinetako herritarrak gonbidatzea. Parte hartzera eta baita ekarpenak egitera ere, kultura ezberdinak ezagutzera eman. [3] - Proiektu zabala diseinatu eta bideratu integrazioa bilatzeko. - Komunikazio bideak zaindu eta egokitu behar eta egokitasuna oinarri hartuta: aniztasun funtzionala(k), adina, belaunaldi ezberdinak, ulermen modu ezberdinak... [1]

Plenariora eta lehenestea

Taldeka erronkak eta proposamen zehatzak landu ditugu eta plenarioan partekatzeko ordua iritsi da. Horretarako, lehenik eta behin, landutako ekarpenak jasotzen dituzten papelografoak itsatsi ditugu galerian, eta, ondoren, talde bakoitzak plenarioan aurkeztu ditu banan bana.





Aurkezpenak bukatu direnean, bakoitzari 3 gometx banatu dizkiogu eta eskatu diegu erronkak irakurri, eta gometxen bidez lehenesteko. Amaitu ondoren lehenetsi dituzten ekintza horiek zerrendatu ditugu.

Honakoak izan dira lehenetsitako ekintzak (gometx kopuru altuena lehenengo):

Gometx kop.	- Ekintzak
12	- Uholdegarritasun-afekzioari buruzko azterketa sakona egitea
11	- Eguneko zentroa lortzea (bitartean jubilatuen elkartzea baliatu)
10	- Eragileen-elkarteen mahaia sortu
8	- Energia-burujabetzaranzko pausuak ematea - Nerabeen beharrak asetzeko plangintza egin
6	- Herri-hezitzaile izaerarekin, "Hezkidetza-Elkarbizitza" sustatzeko plana egitea. -
4	- Euskararen balioaz kontzientziatu
3	- Herrian antolatzen diren ekintzetara jatorri eta kultura ezberdinetako herritarrak gonbidatzea. Parte hartzera eta baita ekarpenak egitera ere, kultura ezberdinak ezagutzera eman. - Landa eremua babestu eta balioan jartzea
2	- bizikidetza proiektu bat sortzea adineko pertsonekin eta pertsona zaugarriekin - Hizkuntza kulturartekotasuna sustatzeko erabili
1	- Diagnostiko bat osatzeko - Errespetuaren balorea indartu, berreskuratu, lanketa egin. - Komunikazio bideak zaindu eta egokitu behar eta egokitasuna oinarri hartuta: aniztasun funtzionala(k), adina, belaunaldi ezberdinak, ulermen modu ezberdinak... - Lankidetzan jardutea - Adinekoen sozializazioa - Gazteen emantzipaziorako etxebizitzaren gaia landu - Udalak euskararen erabilera bultzatzeko bideak eman - eLegunea (euskara taldea) indartu

5. Balorazioa

Gaurko saioaren balorazioa egiteko balorazio-orriak banatuko ditugu, eta azkenengo saio zabala denez, beren ekarpenak modu zabalago batean jasotzeko ahalegina egingo dugu.

BALORAZIOA					Oharrak
BALORAZIOA, ORO HAR		I			- Ona - Saioa oso emankorra
SAIOKO ARIKETAK EGOKIAK IZAN DIRA?		I	II	II	- bai
AUKERA IZAN DUT EKARPENA EGITEKO ETA BESTEEN IKUSPEGIA EZAGUTZEKO?		I		I	- bai - Hitz egiteko tartean ondo errespetatu dira
SAIOEN IRAUPENA ETA ESPAZIOA EGOKIAK IZAN DIRA?		I	I		- bai - amaiera labur samarra - Luzea - Ez zegoen argi ariketa bakoitza egiteko zenbat denbora geneukan - Denbora gutxi izan dugu

Beste zerbait nabarmendu nahi duzu:

- Lan-talde gehiagotan parte hartu nahiko nuke, baina kontuan hartuta helburua oinarriak zehaztea dela, oso ongi baloratzen dut.
- Jende gehiago egotea gustatuko litzaidake
- Agian egun batean barneratzeko eduki asko

6. Itxiera

Zelai Amenabarrok, alkateak, eskerrak eman dizkie parte hartzaileei saiora etortzeagatik, eta saio honen itzulera eta prozesuaren amaiera nolakoa izango den azaldu diegu.